

# Euskal Hezkuntza Publikoa indartzeko lan baldintzak hobetu!

**Hezkuntza Publikoko Lan Hitzarmenei Kalitate ziurtagiria ezartzeko garaia da! Lan baldintza onik gabe kalitatezko hezkuntzarik ez dagoelako!**

ELA Hezkuntza Publikoko irakasle, hezitzaile, sukaldari, garbitzaile zein gainerako kolektibo guztien lan baldintzak hobetuko dituen akordioen aldeko greba eta mobilizazioak bultzatzeko lanetan dabil, ondorengoak izanik helburu nagusiak:

- Erosahalmena berreskuratu, soldata arrakala erasotu.
- Prekarietateari aurre egin, bizitzak duindu.
- Hitzarmenak beteko direla bermatu.
- Lanaldiak eta ordu lektiboak murriztu, lana banatu, aurre-erretiroa ahalbidetu bizitzak bizigarriago egiteko.

**Kalitatezko hitzarmena soilik da posible langileak ondo antolatuta**

Negoiazio kolektiboa ordea, ez da justizia kontua: indar-harremanak eta presiorako gaitasunak soilik mugatzen dute gure aldarrikapenerako gaitasuna. Horregatik, ezinbestekoa izango da mahaietako negoziazioak aurrera egiten ez duen momentutik erantzun irmoa ematea eta grebak deitzea. Gogoratu behar dugu 2023. urtea ELAren Erresistentzia-Kutxa indartuta hasi dugula, 1.323 euroko gutxieneko ordainsaria ordainduta greba egiten den hilabete bakoitzeko, eta 1.521,45 euroko ordainsariarekin, afiliazio handia dugun sektore eta enpresetan. 2024ko Kutxa KPIaren pare igoko da, behintzat. Afiliazio handia izatea eta antolakuntza egokia izango dira aurten ere negoziazio kolektiborako ezinbesteko osagaiak. Greba, afiliazioa eta antolakuntza dira nahi dugun negoziazio kolektiboa egiteko hiru osagai nagusiak.

**Eta zuretzat zein da lehentasuna zure lan baldintzak hobetzeko?**

Ikastetxearen/lan zentruaren izena:

Lanpostuaren deskribapena/kategoria:

Adina: \_\_\_\_\_

Sexua: \_\_\_\_\_

Etorkina? Bai/Ez

Aniztasun funtzionala duen pertsona? Bai/Ez

**1.- Zure ustez zein da zure enpresako lan-osasun arazo nagusia?**

Kontziliozko neurriak hartzeko zailtasunak daude.

Lan-karga edo lan-erritmo handien ondorioz bajak daude.

Ez dago arrisku sikosozialen aurkako plangintzarik eta lanaren antolaketa okerrarengatik langileen osasuna kaltetuta izaten ari da (antsietateak, estresa, lo egiteko arazoak...).

Arrisku egoera larrien aurrean ez dago babes sistema egokirik.

Bajak edo bestelako hutsuneak ez dira ordezkutzen edo berandu ordezkutzen dira, eta honek lan kargak gehitzea dakar.

Produktu arriskutsuekin lanean ari gara eta horiekin lotutako bajak dauzkagu.

Etxean/ lan orduz kanpo lan egitea ohikoa da Lankide/ ikasle/zuzendari arteko gatazka egoerak daude eta enpresak ez du neurririk hartzen.

Lankide/ikasle/zuzendari arteko gatazka horiek errepikakorrak dira pertsona batzuekiko, isolatu egiten dituzte, funtziorik gabe utzi dituzte...

Giro sexista dugu eta horrek osasun arazoak eragin dizkio langileei.

Sexu jazarpen egoerak daude.

**2.- Hitzarmena sinatzeko zenbat lanordu/ eskola ordu/arreta zuzeneko ordu murriztu behar da lanaldia?**

8 orduko murrizketa urtean.

16 orduko murrizketa urtean.

2 eskola orduko murrizketa astean.

Beste ordu/eskola ordu murrizketa kopuru bat: \_\_\_\_\_

**3.- Zein soldata igoera izan behar da zure ustez gutxienekoa hitzarmena sinatzeko?**

- KPI
- KPI+1
- KPI+2
- Emakumeen kategorietan soldata arrakalarekin amaitzea.
- Beste kopuru bat: \_\_\_\_\_

**4.- 19.600 euro baino gutxiago kobratzen dituzu urtean? Ez / Bai Erantzuna baiezkoa bada, zergatik?**

- Lanaldi partziala dut eta horregatik ez naiz iristen soldata horretara.
- Dagokidana baino kategoría baxuagoan nago eta horregatik dagokidana baino gutxiago ordaintzen zait.
- Azpikontratutako enpresan 19.600 eurotik beherako soldatak dauzkagu.
- Lan egiteko ezinbestekoak diren hainbat gastu nire gain hartu behar ditut eta, ondorioz, ez dut urtean 19.600 euroko soldata gordinik.

**5.- Kontratu duin bat duzu? Ez / Bai Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?**

- Hiru urte baino gutxiago daramat lanean behin-behineko gisa.
- Hiru urte baino gehiago daramatzat lanpostu/espazialitate/kategoria berean behin-behineko gisa.
- Obra kontratua daukat eta azken lan erreformaren ondoren ez dute kontratua mugagabe bihurtu.
- Lan pilaketagatiko kontratua dut eta 6 hilabete baino gehiago luzatu da.

**6.- Lana eta zure bizitza pertsonala kontziliatzeko zeintzuk dira zure arazo nagusiak?**

---

---

---

---

---

---

---

---

**7.- Enpresan euskaraz lan egin nahi dutenek aukera dute hala aritzeko?**

- Bai
- Ez
- Batzuetan

**8.- Zeintzuk dira zure ustez lan hitzarmenean konpondu beharreko 5 arazo nagusiak?**

---

---

---

---

---

---

---

---

**9.- Beste zerbait aipatu nahi duzu?**

---

---

---

---

---

---

---

---